# AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, SA ETA GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE, SA SOZIETATEEN URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

**Donostia, 2021eko irailak 22**

# AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK, SA ETA GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE, SA SOZIETATEEN URTEKO KONTUEN AUDITORETZA-ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

## 1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA (**aurrerantzean, AUSA**) eta Gestión de Centrales del Añarbe, SA (**aurrerantzean, GECASA**), sozietateen urteko kontuen auditoretza zerbitzu profesionalak ematea, Administrazio Baldintza Berezien Agirian, honen Karatulan eta Baldintza Teknikoen Agiri honetan finkatzen den modura.

Zerbitzu horiek gauzatuko dira ikuskatutako ekitaldi bakoitzeko eta sozietate bakoitzeko txostena aurkeztuz (bat AUSAren urteko kontuena eta bestea GECASAren urteko kontuena); bertan kontu-ikuskariak bere iritzia adieraziko du, eta urteko kontuek enpresa bakoitzaren ondarea eta finantza-egoera erreala azaltzen duten ala ez adieraziko du, hala nola, emaitzak eta efektiboaren fluxuak. Hori egiteko aplikagarri den finantza-informazioari buruzko araudi-esparrua jarraituko da eta, bereziki, bertan jasotzen diren kontabilitateko printzipio eta irizpideak.

Auditoretza-lanak egingo dira Kontuen Auditoretzari buruzko uztailaren 20ko 22/2015 Legean xedatzen dena jarraituz, hala nola, honen garapen-araudian eta, bereziki, auditoretza, etika eta kalitate kontrolerako arau teknikoetan xedatzen dena jarraituz.

## 2. AUDITORETZA-TXOSTENEN HIZKUNTZA

Auditoretza-txostenak egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan eta testuaren diseinu gisa bi zutabeko eredua erabiliko da.

## 3. TXOSTENAK ENTREGATZEKO EPEA

Kontu-ikuskariak AUSAko ekonomia zuzendaritzari entregatuko dizkio bi txosten horien zirriborroak, ikuskatua izan den epealdiaren hurrengo ekitaldiko martxoaren lehen hamar egunetan.